

Nire diruarekin ez

Miren Azkarate
Badiola

Zerbaiten erreferentetzat du EITBk Galindo guardia zibila, zehazki ETaren aurkako borroka-
ren erreferentetzat dute etxe publiko horretako albistegietako kazetari batzuek. Horrela esan dute lasai-lasai orain egun gutxi albistegietan, hitz horiekin. Eta beste behin ere, nahiz eta sekulako astakeria izan, ez da ezer gertatu, ez da ezer mugitu, denak bere horretan jarraitzen du!

Kazetari eta euskal herritar xume bezala ere, betidanik iruditu zait EITBk publikotik ezer gutxi duela; hau da, kate pribatu baten moduan funtzionatzen duela alderdi politiko zehatz batera le-

rratuta eta historiaren zati bat kontatzen duela, ez osoa eta, beraz, ez duela egia islatzen. Baina berez ez luke horrela izan behar, berez denona baita eta publikoa den heinean, hau da, denon (nire barne) diruarekin funtzionatzen duen enpresa izanik, mota honetako albisteek erabat lekuz kanpo egon beharko lukete eta onartezinak dira.

Onartezina da bi gazteren bahiketa eta erailketagatik epaitua eta kondentuta dagoen gizon bati erreferente deitzea. Onartezina da, frogatua ez baina guztiongatik jakina denez torturatzaille handienetarikoa izandakoa erreferentea izatea. Eta erabat onartezina da guztio-

na den ente publiko batek hori esatea albistegietan. Kazetari horrek, bere nagusiak eta aurkezleak hori pentsatzen badute, aurrera, haiek ikusiko dute zein duten erreferentetzat beren bizitzetan. Baina kate publiko batek ezin du hori adierazi! Ezin du aldebakarreko bikti-mentzako errespetua eskatu eta gainontzekoak umiliatu, iraindu eta zapaldu. Eta hitz horiek esatearekin EITBko albistegietako langile zairenak torturatu guztioi eta bereziki Intxaurrondotik pasatu zirenei sekulako mina egiten ari zairete. Aski da! Torturatzailleek duten in-punitate berdina duzue zuek edozer esateko ala? Nire diruarekin ez! •

Konkistatzaile horiek

Antton Izagirre

Egun hauetan geure begien aurrean jarri digute “Perseverance” robotaren marteratzea eta ia salbuespenik gabe txalotu dugu zientzia eta garapenaren balentria. Zeresanik ez, euskal unibertsitateko zientzialarien abileziaz eta jakinduriaz garatutako tresneriaz hornituriko ontzia baldin bada hara bidali duguna. Zaila egingo zaio iritzi publikoari eginiko konkista zalantzan jartzea.

Imajinatzen dut antzeko zerbait izan zitekeela orain bostehun urte, gure basoetako egurraz eta gure herrietako olagizonak egindako itsasontziak lur ezezagun haietara bidaltzen zirenean, garaikoek balentria haietaz esan eta pentsa zezaketena. Zeresanik ez tartetan Juan Sebastian Elkano moduko itsasgizonak munduari bira eman,

Amerikak konkistatu eta itzultzen baldin baziren.

Ikusi besterik ez dago bostehun urte beranduago nola laudatu eta goraipatu dugun edo duten batzuek, gure agintariak tarteko, orduko gertakari haiek. Liburuak, filmak, hitzaldiak, filosofiak eta tesiak gizon haren ustezko egitateak goraiatzeko edo agian, zuritzeko, beste askoren ustetan.

Mende haietan munduari bira ematea izan zitekeen balentria zalantzan jarri gabe, eta hori besterik gabe txalotzetik harago ez al genuke galdetu beharko kolonizazio saiakera horien guztien ondorioaz? Edo noren zerbitzura jarri ziren abilezia eta jakinduria haiek? Oraindik ba al dago norbait indigenei onurak eta “zibilizazioa” eramateko itsas bidaiak izan zirela uste duenik?

Urte asko joan dira 1949an Ameriketako Estatu Batuetako Truman presidenteari, kargu-hartze hitzaldian, konkistaturiko lurralde haiek garapen bidean jarri behar zirela aldarrikatu zuen hartatik. Gaur da eguna kolonizatutako lurralde haien ekonomiaren ustiapenak kolonizatzaileen menpeko edo baldintzapeko izaten jarraitzen duena eta garapen aldarri hura iruzur hutsa bilakatu dena.

Egun hauetako marteratzea ere, askoren ustez, garapen horren lorpena izango da. Baina kontua zera da: norentzat izango ditu onurak? Zientzia eta garapen horrek, euskal zientzialariena tartetan, munduko gosetea eta pobrezia behin betiko alboratzeko balioko du ala betikoen patrikak berotzeko? Denak ez du baleko izan behar. Garapen kontzeptua deseraikitze garaia da. •